



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA, GIPUZKOAKO APAREJADORE ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTUEI BURUZKOA

Kontseiluaren Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kontseilukidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

### Laburpena:

I. AURREKARIAK.....	1
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK.....	2
III. GOGOETA LEHIARI BURUZKO ARAUAK DIRELA ETA .....	4
A. Elkargora nahitaez bildu beharra .....	4
B. Elkargokidetze bakarra estatuko lurralde osorako.....	7
C. Enkargu profesionalen berri ematea.....	8
D. Zerbitzu-saria.....	9
E. Ikus-onespena .....	11
F. Elkargoko kideak elkarren kontra bidegabe lehiatzea .....	16
G. Elkargoaren baliabide ekonomikoak .....	17
H. Lanak Elkargoaren bitartez esleitzea elkargokideei.....	18
I. Erantzukizun zibileko aseguruak .....	19
IV. ONDORIOAK .....	21

Lehiaren Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean, LEK) Osoko Bilkurak, arestian aipatutako osaera duela, Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialaren Estatutuei buruzko txosten hau ematea onetsi du, 2014ko martxoaren 4an eginiko bilkuran.

### I. AURREKARIAK

1.2013ko abuztuaren 8an, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzaren idazki bat jaso zen Lehiaren Euskal Agintaritza honetan, Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialaren Estatutuen (aurrerantzean, GAATEOE) aldaketaren kopia bat erantsita, Lehiaren Euskal Agintaritzak adieraz dezan aldaketa lehia babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat datorren ala ez.



## II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

**2.**Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko eman dizkion eskumenek hala baimenduta egin dugu txosten hau. Horrelako eskumenen helburua da Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea (eta, ahal dela, bermatzea). Horretarako, zigorraz besteko neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak, eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekin harremanetan jartzen da.

**3.**Gure antolamendu juridikoak Profesionalen Elkargoei buruz arautzen duena Espainiako Konstituzioan oinarritzen da. Hain zuzen ere, zera xedatzen du Espainiako Konstituzioko 36. artikulua: «Legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jarduera arautuko du.» »Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute».

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia Defendatzeko 15/2007 Legea zeharo bete behar dute<sup>1</sup>. Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren araudiaren aldaketa berriak direla eta<sup>2</sup>. Elkargo profesionalen gaineko arauak, bai estatuan, bai autonomia-erkidegoetan, zuzentarau horren arretiko arauketa bat dute oinarri; Elkargo Profesionalei buruzko estatuko 1974ko Legea (aurrerantzean, EPL), eta 18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa (aurrerantzean, EEL)<sup>3</sup>. Dena den, une honetan zuzentaruaren transposizioa egiteko estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako hainbat tresna daude, eta horiek aldaketa ugari eragin dituzte lehengo arau horietan, eta, beraz, baita profesionalen elkargoen funtzionamendu-araubidean ere; hauek dira: Zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko 17/2009 estatuko legea («Paraguas» legea) eta Zerbitzu-emaila izaera eskuratzeko zenbait lege aldatu eta jarduera horretan aritzeko askatasunera egokitzen dituen 25/2009 estatuko legea («Omnibus» legea), eta EAEko 7/2012 Legea, batik bat<sup>4</sup>.

<sup>1</sup> 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzekoa.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

<sup>3</sup> Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legea, 7/1997 Legea, apirilaren 14koa, Lurzoruaren eta lanbide elkargoen arloetako liberalizazio neurriei buruzkoa, eta 18/1997 euskal Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa.

<sup>4</sup> 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, Zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa (Aterki legea esaten zaiona).



EELaren xedea da «tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, betiere Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe. Hain zuzen ere, hau xedatzen da Espainiako Konstituzioaren artikulua horretan: «Agintariek ezin izango dute erabaki, ez zuzenean ez zeharka, Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea oztopatzen duen neurririk».

Horrenbestez, azaroaren 21eko EELak arautzen du Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala; zehazki, 2012an Legea Europako Erkidegoko araudira egokitzeko egindako aldaketen arabera testuak. Izan ere, arauaren bederatzigarren xedapen gehigarriak xedatzen duenez, «elkargo profesionalen erregimenaren oinarriak arautzen dituzten aginduak osorik edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatuzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarrizko araudian birmoldatzen diren unean».

**4.**Elkargoak araudiaren mende egotea ez da estatutuek eta elkargoaren beste arau batzuek (barne-araubideak, prozedurak, araudi deontologikoak...) hitzez hitzez araudiari men egitea bakarrik. Aitzitik, elkargoen jardun guztiak araudiari men egitea ere bada. Hori dela eta, estatutuen testua gorabehera, elkargoek ezin dute onartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ez eta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ezarri ere, lehia babesteko legedia urra baitezakete<sup>5</sup>.

**5.**GAATEOEei buruzko txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarrizko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu GAATEOEetako zer agindutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

Halaber, adierazi behar da LEAk bi motatako gomendioak egingo dituela txosten honetan: alde batetik, GAATEOEak arauen kontra doazela nabarmentzen dituztenak,

---

25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zenbait lege aldatu eta egokitzen dituen, zerbitzu-emaile izaera eskuratzeko eta jardura horretan aritzeko askatasunera (*Omnibus* legea esaten zaiona).

7/2012 LEGEA, apirilaren 23koa, zenbait lege barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Zuzentaraura egokitzeko, zeinak 18/1997 euskal Legea, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa, aldatzen baitu.

<sup>5</sup> LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Informe sobre los Colegios Profesionales tras la transposición de la Directiva de Servicios*, Madril, 2011. 22. orria eta hurrengoak.



eta, bestetik, indarrean dagoen legediaren zuzenean kontrakoak izan ez baina lehiari behar baino kalte handiagoa egiten dioten pasarteei buruzkoak. Bigarren gomendio motari dagokionez, lehiari kalte txikiagoa egiten dioten aukerak proposatuko ditugu, interes publikorako onuragarriagoak direlakoan.

### III. GOGOETA LEHIARI BURUZKO ARAUAK DIRELA ETA

#### A. Elkargora nahitaez bildu beharra

6.Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua arautzen du Elkargoen izaera, eta Konstituzio Auzitegiak dagoeneko interpretatu du. Hark erabaki duenez, «interes publikoaren mesedetan jarduteko beharrak justifikatuta egonez gero baizik ezin izango da Konstituzioaren arabera bidezkoa izan elkargora nahitaez bildu beharra»<sup>6</sup>. Horrenbestez, Auzitegi Konstituzionalak **legegilea** gaitzen du, hark, egokitzat jotzen duenean, elkargo profesionalean elkartzeko askatasuna eta lanbidea aukeratzeko askatasuna mugatu ditzan —bereziki elkargoko kide egitera behartuz—, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean<sup>7</sup>.

*Aterki* Legeak, hau da, zerbitzuei buruzko 2006/123 Zuzentarauaren transposizioa egin zutenetako batek, elkargoko kide ezinbestean egin beharra baimentzen du, salbuespen gisa, baldintza hauek batera betetzen direnean:

- Ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumena babesteko arrazoia direla-eta, hala justifikatuta egotea. (12. artikulua)
- Eskakizuna diskriminatzailea ez izatea (hau da, zuzenean nahiz zeharka, hura diskriminatzailea ez izatea, eskumena duen agintaritzaren kokapenaren edo nazionalitatearen arabera). (5. artikulua)
- Beharrezkoa izatea (hau da, interes orokorreko premiazko neurriren batek justifikatua izatea). (5. artikulua)
- Haren helburua lortzeko egokia izatea (hau da, nahi den helburua lortu ahal izateko elkargoko kide egitea tresnarik onena izatea, eta, beraz, emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen neurri hoberik ez izatea). (5. artikulua)
- Araubide hori zehazten duen Legean behar bezala arazoituta egotea. (5. artikulua)

Euskal Autonomia Erkidegoan, EELaren 30.1 artikulua arautzen du profesio batean jarduteko ezinbestean elkargo bateko kide egin beharra ezartzeko

<sup>6</sup> Auzitegi Konstituzionalaren 89/1989 Epaia, maiatzaren 11koa. Zentzu berean, Auzitegi Konstituzionalaren abenduaren 15eko 330/1994 Epaia kontsultatu daiteke, beren borondatez atxikitzea ahalbidetzen duten elkargoak baimentzen dituen. Era berean, Auzitegi Konstituzionalaren apirilaren 23ko 76/2003 Epaia dugu, Toki Administrazioari Idazkarien, Kontuhartzaileen eta Diruzainen Elkargoei dagokienez elkargora nahitaez bildu beharra konstituzioaren aurkakotzat jotzen duena, lanbidearen antolaketarekin lotuta konstituzionalki garrantzitsuak diren helburu edo eginkizun publikoak garatzen ez dituztelako, hain zuzen.

<sup>7</sup> Ikus, horiek ere gure mugetatik kanpo, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1983ko otsailaren 10eko Epaia. Le Compte, Van Leuven eta De Meyere Belgikaren aurkako auzian, edo 1993ko ekainaren 30eko epaia, Sigurdur A. Sigurjónsson Islandiaren aurkako auzian (A seriea, 264. zenbakia); horietan, neurritz kanpokotzat jotzen da taxi-gidari bati taxi-gidarien erakunde batera atxikitzeke betebeharrak legala.



aukera. Xedapen horren arabera, «Lanbide kolegiatuetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kide izatea, **dagokion legeak horretara behartzen duenean**<sup>8</sup>. Horrenbestez, elkargora nahitaez bildu beharra lege mailako arauen batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da egokitzat.

Gainera, elkargoko kide egin beharra lege-mailako arauen batean jaso beharko da hark Lehia Defendatzeko Legearen 4. artikulua babesa izango badu<sup>9</sup>.

Oro har, *Omnibus* Legeak sarbidearen eta jardun profesionalaren mugak ezabatu zituen, baina etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jarduera-erreserben eta elkargoko kide egin beharraren aldaketa<sup>10</sup>. Une honetan, profesionalen elkargoei buruzko Legearen 3.2 artikulua arabera, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean bakarrik eskatu ahal izango da elkargo bateko kide izatea lanbide batean jarduteko. Dena den, elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak legez arautzen ez diren bitartean, *Omnibus* Legearen laugarren xedapen iragankorrari jarraikiz hura indarrean sartu zen unean indarrean zirenak finkatu egin dira. Horregatik, elkargoko kide izatea beharrezkoa den egoerak mantendu dira, arauan ezarrita ez egon arren, eta, beraz, maila egokia ez izan arren.

7. Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Kontseilu Orokorraren eta Elkargo Ofizialen Estatutu Orokorrak onesten dituen maiatzaren 13ko 1471/1977 Errege Dekretuaren 3. artikulua dio aparejadore edo arkitekto tekniko jarduteko ezinbesteko betekizuna dela subjektuaren helbide profesional bakarra edo nagusia duen lurraldeari dagokion Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo

---

<sup>8</sup> 2013ko urtarrilaren 17ko Auzitegi Konstituzionalaren 3/2013 Epaia (2013ko otsailaren 12ko EAO, 37. zenbakia), Andaluziako profesionalen elkargoei buruzko legearen gainekoa; haren arabera, Estatuaren eskumen eskusiboa da elkargoa derrigorrez kide egin behar izatea eta horren salbuespenak finkatzea. Zentzu berean agertzen dira Auzitegi Konstituzionalaren 46/2013 Epaia (Extremadurako legeari dagokionez) eta Auzitegi Konstituzionalaren 50/2013 Epaia (Asturiasko legeari dagokionez).

<sup>9</sup> Aipatutako 4. artikulua horretako «Legeak salbuesitako jokaerak» epigrafeak honako hau dio: «Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei». Bestalde, honela jarraitzen du artikulua: «Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, eta lege-babesik gabe burutzen badira».

<sup>10</sup> Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorrak: «Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak zehaztuko dira, baina lege-proiektu hori ez da oraindik igorri. Proiektu horretan elkargoko kide izan beharraren jarraitutasuna aurreikusi beharko litzateke hura jardun profesionalaren kontrolerako tresna eraginkorra den kasuetan, horrela, zerbitzuen hartzaileak hobeto babesteko; baita interes publiko bereziko gaiak modu larrian edo oso larrian kaltetu daitezkeen jardueretan ere, pertsona fisikoen osasunaren babesa eta osotasun fisikoa edo segurtasun pertsonala edo juridikoa kaltetu daitezkeen kasuetan, adibidez».



Ofizialera biltzea<sup>11</sup>. Beraz, aipatutako obligazioaren oinarria ez da lege bat, baizik eta errege dekretu bat.

**8.GAATEO**etan, xedapen honetan heltzen zaio elkargora nahitaez bildu beharrari:

**4. artikulua.- Elkargokide egiteko betebeharra.**

Elkargora biltzea profesioan jarduteko ezinbesteko betekizuna izango da helbide profesional bakarra edo nagusia Gipuzkoan duten Aparejadore eta Arkitekto Teknikoentzat eta baldintza hori bera betetzen duten Arkitekto Tekniko gisa jarduteko gaitasuna aitortzen dien tituluren bat duen bestelako profesionalentzat. Hautazkoa izango da helbide hori beste lurralde batean dutenen kasuan.

Elkargora biltzeko betekizuna ez zaie eskatuko Administrazio Publikoari lan- nahiz administrazio-erlako zuzenbideak araututako zerbitzu-erlazio baten bidez lotutako profesionaleri. Dena dela, elkargora bildu beharko dute jardueran pribatuki jardungo badute.

**9.**Elkargora nahitaez bildu beharrak elkargokide egiten diren eta titulu jakin bat duten profesionalentzat erreserbatzen du jarduera. Lanbidearen jarduera elkargoko kide diren profesionaleri bakarrik erreserbatzeak sartzeko oztopo handiak eragiten dizkie hirugarrenei, eta printzipioz, horrek beste lehiakide batzuk eta kontsumitzaileak kaltetzen ditu<sup>12</sup>.

Egiaztatu da GAATEOetan ezinbesteko baldintza gisa ezartzen dela elkargora bildu beharra aparejadore edo arkitekto tekniko gisa jarduteko. Esandako guztitik ondoriozta daiteke, haatik, aldi baterako besterik ez dagoela indarrean aparejadoreak eta arkitekto teknikoek elkargora biltzeko obligazioa, *Omnibus* legearen aldi baterako laugarren xedapena aplikatuz gero, zeren, lege mailako estatuko arau batean jasota ez egonagatik ere, sendotu egin baitzen nahitaez elkargora biltzeko beharra zekarren maiatzaren 13ko 1471/1977 Errege Dekretuaren 3. artikulua indarra.

Dena den, araudia aldatu aurretik gauzatzen diren elkargo-estatutuen aldaketa guztiek elkargora nahitaez bildu beharraren erreferentziak saihestu behar dituzte edo nahitaezko baldintza horrek lege-mailako arau batean zehaztutakoari erantzuten diola

<sup>11</sup> Erredakzio hori maiatzaren 18ko 542/2001 Errege Dekretuaren (ekainaren 6ko EAO) Eranskinaren 1. zenbakiak eman zion, zeinak bigarren aldiz aldatu baitzituen maiatzaren 13ko 1471/1977 E.D.ak onetsi eta otsailaren 16ko 497/1983 E.D.ak lehen aldiz aldatu zituen Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Kontseilu Orokorren eta Elkargo Ofizialen Estatutu Orokorrak.

<sup>12</sup> LBNaren txosten aipatua, 42. or.



gaineratu behar dute; era berean, hark behin-behineko izaera duela islatu beharko da, eskakizun hori lege-mailako arau batean txertatu bitartean<sup>13</sup>.

## **B. Elkargokidetze bakarra estatuko lurralde osorako.**

**10.** Nahiz eta, logikoa denez, EELk ez duen kontu hori berariaz arautzen, haren 39.4 artikulua dio «Elkargoek ezin diete exijitu inongo komunikaziorik edo gaikuntzarik elkargoa daukaten lurraldetik kanpo lan egiten duten kideei, ez eta jasotzen dituzten prestazioengatik, elkargoaren kuotak berak ordaintzen ez dituela-eta, beren kideei normalean eskatzen dizkieten ordain ekonomikoez aparteko beste ordainik ere exijitu». Halaber hartu behar dira aintzat Espainiako Konstituzioaren 139. artikulua eta EPLaren 3.3 artikulua, zeinak, Europako Batasuneko araei jarraikiz, xedatzen baitu ezen badin eta profesio bat lurralde-elkargotan antolatzen bada, orduan nahikoa dela horietako batean kidetzea lurralde nazional osoan jardun ahal izateko.

**11.** GAATEOEen 9. artikulua arautzen du gaia.

### **9. artikulua. Profesioan aldi batez jardutea Gipuzkoako lurraldean.**

1- Beste lurralde batzuetan kidetutako profesionalek Gipuzkoan egiten duten jarduna jakinaraztea.

Beste lurraldeetan kidetutako profesionalek Gipuzkoan jardun ahal izateko betekizun bakarra da delako jarduera profesionala Elkargo honetan ikus-onespena edo erregistroa egiteko aurkeztea, Estatutu hauetako 33. artikuluan aurreikusitako kasuetan. Elkargoak ezin izango die komunikaziorik edo gaikuntzarik eskatu jasotzen dituzten zerbitzuen truke, ez eta Gipuzkoako kideei eskatu ohi ez dizkieten ordainak ordain ditzatela ere, elkargoko kuotak horiek estaltzen ez dituztenean.

(...)

**12.** Esan bezala, EPLaren 3.3 artikuluan xedatutakoaren ildotik, profesio bat lurraldekako elkargotan antolatzen denean, nahikoa izango da haietako batean kidetuta egotea lurralde osoan jardun ahal izateko. Beraz, GAATEOEek ezin dute baldintza gehigarriak xedatu beste lurraldeetan kidetutako profesionalek Elkargoaren lurraldean, Gipuzkoan hain zuzen, libreki jarduteko, eta hori dela-eta ezabatu egin behar da paragrafoaren lehen lerrokan aipatzen den betekizuna.

<sup>13</sup> Lehiaren Batzorde Nazionalaren aipatutako txostena, 44. or.



13. Bigarren lerroak jakinarazpeni buruz dakarren arauketa zuzena da. Dena dela, esan berri dugunez, beharrezkoa da 1. paragrafoaren testua aldatzea –*Jakinaraztea* kentzea, hain zuzen–, ez dadin nahasgarri suertatu.

### C. Enkargu profesionalen berri ematea.

14. EPLaren 6. artikulua, 3. paragrafoaren j letran, dio elkargokideek aurkeztu beharreko edo, hala badagokio, bezeroei exijitu beharreko aurrekontuaren edo enkargu-oharraren araubidea estatutu orokorrek arautuko dutela.

Hori dela eta, Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Kontseilu Orokorren eta Elkargo Ofizialen Estatutu Orokorren 14. artikuluan II) letrak xedatu duenez, Kontseilu Orokorrari dagozkion xedeak bilatzea dela eta, Batzar Nagusiari egokituko zaio «jarduera profesionalaren aurrekontuaren eta enkargu-oharraren araubidea, edukia eta izapidea onestea, elkargokideek bezeroari aurkeztu edo, inoiz, exijitu behar dietena, Elkargo profesionalen Legeak agintzen duenez»<sup>14</sup>.

15. GAATEOEetan, 3.15 eta 33. artikuluetan arautu da jasotzen diren enkargu profesionalak Elkargori jakinarazteko araubidea:

#### **3. artikulua. Elkargoaren eginkizunak.**

Ondoko eginkizun hauek dagozkio Elkargori:

15. Elkargokideek jasotzen dituzten enkargu profesionalen jakinarazpenak erregistratzea eta, bezeroek eskatzen dutenean nahiz legeak ezarritakoaren arabera nahitaezkoa denean, ikus-onespena ematea lan profesionalari eta haiek euskarri dituzten dokumentu teknikoei. Legeak eskatzen dituen enkargu-notaren eta aurrekontuaren bidez dokumentatuko da jakinarazpena.

#### **33. artikulua. Ikus-onespeneko zerbitzua**

Elkargokideek jasotzen dituzten enkargu profesionalen jakinarazpenak erregistratzeko eta lan profesionalari eta horiek euskarri dituzten dokumentu teknikoei ikus-onespena emateko zerbitzu bat izango da Elkargoan, hori, indarrean dauden lege-arauetan hala xedatu delako, nahitaezkoa denean edota bezeroek, Administrazio Publikoak barne, berriaz eskatzen dutenean.

Espediente-hasierako Erregistro-oharrari, dokumentu teknikoei eta haiek gauzatzen direneko eta kausa duten derrigorrezko kontrol-dokumentuei egingo zaie, hala nola proiektuak, tasazioak, peritu-txostenak, agindu eta laguntza-liburuak, gorabehera-liburuak, kalitate-kontrola, obra-amaierako ziurtapenak eta profesioan jarduteak zor

<sup>14</sup> Maiatzaren 13ko 1471/1977, otsailaren 16ko 497/1983, maiatzaren 18ko 542/2001 eta urriaren 30eko 1639/2009 Errege Dekretuak.





dituen beste guztiak, betiere legean eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoarekin bat.

Ikus-onespena ematea ekintza publiko eta administratiboa da, eta Espedientea hasi izanaren erregistro-oharra aurkeztearekin hasita gauzatuko da, elkargokideen izenean egingo da, eta elkarte profesionalen kasuan, haien alde eta lanaren ardura beren gain hartzen duten profesionalen alde. Nahitazko ikus-onespenen kasuan, udalei nahiz dagozkien beste Administrazioei emango zaie horien berri, indarrean dauden lege-arauei jarraikiz.

16. Esandako artikulua irakurrita, ematen du Elkargoak bere kideei jasotzen dituzten enkargu profesional guztiak erregistratzeko obligazioa ezarri diela, zeinak, 3. artikulua dioena gorabehera (*Legeak eskatzen dituen enkargu-notaren eta aurrekontuaren bidez dokumentatuko da jakinarazpena.*), ez baitirudi lege-mailako ezein arautan oinarritua denik, obligazio hori ez baita jaso ez EPLan, ez beste ezein legetan.

33. artikuluan, besteak beste, xedatzen da kideek jasotzen dituzten enkargu profesionalen jakinarazpenak erregistratzeko zerbitzu bat izango dela Elkargoan. Haatik, artikulua epigrafea «Ikus-onespeneko zerbitzua» da, eta, beraz, uler liteke enkarguak jakinarazteko eta erregistratzeko obligazioa elkargoaren ikus-onespena eskatzen denean baizik ez dela aplikatu behar.

Hori guztia dela eta, 3.15 artikuluan enkargu profesional guztiak erregistratzeko obligazioari buruz xedatutakoa aldatu behar da, halako moduan non ikus-onespena behar duten edo borondatez eskatzen zaien lan profesionaletan bakarrik exijitu ahal izateko delako erregistro hori.

#### **D. Zerbitzu-saria**

##### **a. Zerbitzu-saria kobratzeko zerbitzua**

17. EEL ek 24.f artikuluan dio Elkargoaren berezko eginkizuna dela, besteak beste, «*Ordainak, soldatak eta zerbitzu-sariak kobratzea, elkargoko kideek eskatuz gero eta, betiere, elkargo bakoitzeko estatutuetan zehazten diren baldintzetan*». EPLaren 5.p artikulua arabera, elkargoen eginkizuna da, halaber, «arduratzea, elkargoaren kideek modu askean eta berariaz eskatzen dietenean bakarrik, haien ordain, soldata eta zerbitzu-sarien kobrantzaz, betiere elkargoak horretarako zerbitzu egokiak sortuak dituen eta elkargo bakoitzaren estatutuetan zehazten diren baldintzetan».

18. GAATEOEetan, 3.16 eta 37. artikuluek arautzen dute gaia.

**3. artikulua. Elkargoaren eginkizunak.**

Ondoko eginkizun hauek dagozkio Elkargoari:

16. Arduratzea, elkargoaren kideek hala eskatuta, haien ordain, soldata eta zerbitzu-sarien kobrantzaz.

**37. artikulua. Zerbitzu-saria kobratzeko zerbitzua**

Elkargokideek beren zerbitzu profesionala emateagatik sortzen dituzten ordain, soldata eta zerbitzu-sarien kobrantzaz arduratuko den zerbitzu bat antolatu ahal izango du.

Elkargokideek sortutako zerbitzu-sarien kobrantza haiek libre eta berariaz eskatuta baino ez du kudeatuko Elkargoak. Eskaera egiteko berariaz sortutako inprimakiak erabiliko dira.

**19.** Hori dela eta, gogora ekarri behar da Elkargoaren jardunak ez duela, ez zuzenean, ez zeharka, prezioak finkatzea edo orientatzea helburu izango. «Zerbitzu-sariak kobratzeko elkargo-zerbitzua» delakoa Elkargoek beren kideen jarduera kontrolatzeko tresna posibleztat jo da. Horregatik, zerbitzu hori ezin da nahitaez eta ezinbestean erabiltzekoa izan; aitzitik, profesionalak libre eta berariaz eskatzeko aukera izan behar du, GAATEOEek ondo xedatu bezala.

«Zerbitzu-ordainak Elkargo profesionalen bitartez kobratzeak lehia murrizteko arrisku handia dakar. Alde batetik, kideen artean alde zuzenetik zerbitzu-ordainen prezioa adosteko, merkatua partitzeko edota konpentsatzeko itun bat baldin badago, orduan kobrantza zentralizatzea kontrol-mekanismo bilaka liteke, aztertzeke ea profesionalak delako itun hori betetzen duten ala ez. Bestalde, esandako horiek bezalako lehiaren kontrako itunik egon gaberik ere, beren kobrantza Elkargoaren bitartez bideratzen dituzten profesionalen kopurua handia baldin bada, horien buruzko informazioa zabaltzeak lehiaren murrizketak gertatzea erraz lezake»<sup>15</sup>.

Beraz, zeregin hau gauzatzean lehiaren kontrako portaerarik ez izaten saiatu behar du GAATEOak.

**b. Zerbitzu-sariei eta prezioak zeharka zehazteari buruzko txostenak**

**20.** EELaren 24. artikulua arabera, elkargoen berezko eginkizunak dira, halaber, «Irizpide orientagarriak prestatzea, baina soilik kostuak tasatzearen eta abokatuen kontuei zin egitearen inguruan. Irizpide horiek baliatuko dira zerbitzu-sariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko (e letra), eta baita "zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozesu judizial eta administrazio-jardunbideetan txostenak emateko» (f letra, *in fine*)<sup>16</sup>.

**21.** GAATEOEen 3.26. artikulua arautzen du gaia.

<sup>15</sup> LBNaren txostena, 73. or.

<sup>16</sup> EPLaren 5.o artikuluan «zerbitzu-sari profesionalak eztabaidatzen diren prozedura judizial edo administratiboen berri emateko» eginkizuna aipatzen da.

**3. artikulua. Elkargoaren eginkizunak.**

Ondoko eginkizun hauek dagozkio Elkargoari:

26. Zerbitzu-sariak kalkulatzeko irizpide baloragarriak prestatzea, kostuak tasatzeko besterik ez.

**22.** *Omnibus* legeak ezabatu egin zuen EPLaren 5. artikulua Elkargo Profesionalei esleitzen zien funtzio hura –zerbitzu-sari orientagarriak ezartzea, hain zuzen–, eta berariaz debekatu zuen halakorik egitea, 14<sup>17</sup>. artikuluan. EPLaren Xedapen Gehigarrian dator salbuespen bakarra, zeinak aukera ematen baitu Elkargo profesionalak «irizpide orientagarriak» (ez baremoak) prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko besterik ez. Irizpide horiek baliatuko dira zerbitzu-sariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.

**23.** Kostuak tasatzeko irizpideak ezartzea dela eta, lehenik eta behin argitu behar da arauak «baremo» orientagarriak ez, baizik eta «irizpide» orientagarriak aipatzen dituela. Irizpide orientagarriak dira «kostuak tasatzeko aintzat hartu behar diren elementuak»<sup>18</sup>. Ezin da «irizpidetzat» hartu elementu horiek kasuan kasuan aplikatuta lortzen den emaitza kuantitatiboa. Kasu horretan prezio edo zerbitzu-saritzat hartu behar genuke hori, debekatutako zerbait, hain zuzen.

**E. Ikus-onespena**

**24.** Azaroaren 21eko EELaren 24. artikulua arautzen ditu elkargoen berezko eginkizunak, eta i) hizkian, eginkizun hau ezartzen du: «Lanbide teknikoei dagokienez, bakoitzaren eskumen-esparruko lan profesionalak ikus-onestea, **bezeroek** (herri-administrazio gisa diharduten herri-administrazioak barne) **hala eskatzen dutenean bakarrik**, edo indarrean dagoen araudiak hala agintzen duenean. Ikus-onespenaren **helburua** da gutxienez lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ikustea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela ziurtatzea, dena delako lan horri aplikatzekoa zaion araudiaren arabera. Ikus-onespenak oso argia izan behar du bere xedeari, kontrolatu diren kontuei eta elkargoak hartzen duen erantzukizunari buruz, baina ez ditu inola ere agertuko ez zerbitzu-sariak ez eta kontratuaren baldintzak ere, bai bata eta bai bestea aldeek adostutako akordioaren barruan finkatu beharko baitira. Ikus-onespenak ez du jasoko lan profesionalaren elementu fakultatiboen kontrol teknikoa. Elkargoaren ikus-onespena ezinbestekoa den kasuetan, ikus-onespenaren kosteak modu onekoa izan

<sup>17</sup> EPLaren 14. artikulua: Zerbitzu-sariei buruko gomendioen gaineko debekua. «Elkargo Profesionalek eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute zerbitzu-ordain profesionalari buruzko baremo orientagarriak, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».

<sup>18</sup> LBNaren txostena, 71. or.



behar du, ez gehiegizkoa eta ez diskriminagarria ere. Elkargoek argitaratu egin behar dute ikus-onespenaren kostua, eta telematikoki izapidetu ahal izango da»<sup>19</sup>.

**25.** GAATEOEetan, 3.15, 6, 9 eta 33tik 36ra bitarteko artikuluek arautzen dute gaia.

**3. artikulua. Elkargoaren eginkizunak.**

15. Elkargokideek jasotzen dituzten enkargu profesionalen jakinarazpenak erregistratzea eta, bezeroek eskatzen dutenean nahiz legeak ezarritakoaren arabera nahitaezkoa denean, ikus-onespena ematea lan profesionaleri eta haiek euskarri dituzten dokumentu teknikoei. Legeak eskatzen dituen enkargu-notaren eta aurrekontuaren bidez dokumentatuko da jakinarazpena.

**6. artikulua. Jarduten duten eta jarduten ez duten elkargokideak.**

Aparejadoreak, Arkitekto Teknikoak eta Arkitekto Tekniko gisa jarduteko gaitasuna aitortzen dien tituluren bat duten bestelako profesionalak jarduten duten edo jarduten ez duten kide gisa bildu ahal izango zaizkio Elkargoari.

Horietako aukera bat edo bestea hartzea borondatezko erabakia izango da, profesioan jarduteko aukeratzen den modua gorabehera. Haatik, ikus-onespena jaso behar duten jarduerak egin nahi dituzten profesionalek jarduten duten kide izan beharko dute nahitaez.

**9. artikulua. Profesioan aldi batez jardutea Gipuzkoako lurraldean.**

1- Beste lurraldeetan kidetutako profesionalek Gipuzkoan egiten duten jarduna jakinaraztea.

Beste lurraldeetan kidetutako profesionalek Gipuzkoan jardun ahal izateko betekizun bakarra da delako jarduera profesionala Elkargo honetan ikus-onespena edo erregistroa egiteko aurkeztea, Estatutu hauetako 33. artikuluan aurreikusitako kasuetan. (...)

**33. artikulua. Ikus-onespeneko zerbitzua**

Elkargokideek jasotzen dituzten enkargu profesionalen jakinarazpenak erregistratzeko eta lan profesionaleri eta horiek euskarri dituzten dokumentu teknikoei ikus-onespena emateko zerbitzu bat izango da Elkargoan, hori, indarrean dauden lege-arauetan hala xedatu delako, nahitaezkoa denean edota bezeroek, Administrazio Publikoak barne, berariaz eskatzen dutenean.

Espediente-hasierako Erregistro-oharrari, dokumentu teknikoei eta haiek gauzatzen direneko eta kausa duten derrigorrezko kontrol-dokumentuei egingo zaie, hala nola proiektuak, tasazioak, peritu-txostenak, agindu eta laguntza-liburuak, gorabehera-liburuak, kalitate-kontrola, obra-amaierako ziurtapenak eta profesioan jarduteak zor dituen beste guztiak, betiere legean eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoarekin bat.

Ikus-onespena ematea ekintza publiko eta administratiboa da, eta Espedientea hasi izanaren erregistro-oharra aurkeztearekin hasita gauzatuko da, elkargokideen izenean egingo da eta elkarte profesionalen kasuan, haien alde eta lanaren ardura beren gain hartzen duten profesionalen alde. Nahitaezko ikus-onespenen kasuan, Udalei nahiz

<sup>19</sup> Hala dio EPLaren 13.1 artikulua ere.



dagozkien beste Administrazioei emango zaie horien berri, indarrean dauden lege-  
arauei jarraikiz.

#### **34. artikulua. Ikus-onespenaren edukia.**

Bi kontu hauen egiaztapena izango da ikus-onespenaren gutxieneko edukia:

- a) Lanaren autorearen identitatea eta gaitasun profesionala, horretarako Leihatila Bakarrean dagoen elkargokideen erregistroaz baliatuta.
- b) Lan profesionalaren dokumentuen zuzentasun eta osotasun formala, lanari berari dagozkion arau teknikoarekiko.

Ikus-onespenak zeharo argia izan behar du bere xedeari, kontrolatu diren kontuei eta elkargoak hartzen duen erantzukizunari dagokionez, baina ez ditu inola ere agertuko ez zerbitzu-sariak ez eta kontratuaren baldintzak ere, bai bata eta bai bestea aldeek adostutako akordioaren barruan finkatu beharko baitira. Ikus-onespenak ez du jasoko lan profesionalaren elementu fakultatiboen kontrol teknikoa.

Elkargoaren ikus-onespena ezinbestekoa den kasuetan, haren kosteak modu onekoa izan behar du, ez gehiegizkoa eta ez diskriminagarria ere. Elkargoek argitaratu egin behar dute ikus-onespenaren kostua, eta telematikoki izapidetu ahal izango da”.

#### **35. artikulua. Ikus-onespena izapidetzea.**

Ikus-onespena bertatik bertara nahiz telematikoki eskatu ahal izango da, Leihatila Bakarraren bidez, eta dagokion ebazpena, aldekoa, aurkakoa zein etenda uzten duena delarik ere, hurrengo hamar egun baliodunetan hartu beharko da. Interesatuek ikus-onespena jasotzeko ekarritako dokumentuak berriz jasotzean ordainduko dira elkargoaren zerbitzu horrek sortutako eskubide ekonomikoak.

Lehenago beste elkargokide bat esleitu zuen lan profesional bat ikus-onespena jasotzeko aurkezten denean, lan horretan zerikusia duten elkargokide guztien esku-hartzea norainokoa den argitzeko behar adina informazio bilduko da. Bezeroak lehen profesionalarekiko kontratua bertan behera uzteko eta beste bat kontratatzeke duen eskubidea gorabehera eta hari eragin gabe egingo da hori.

#### **36. artikulua. Ikus-onespenaren eskaeraren ebazpena.**

Ikus-onespena ukatzen duen ebazpena berariazkoa eta motibatua izango da, eta hamar egun baliodunen epean jakinaraziko zaie interesatuei haren testu osoa. Gainera, ebazpena elkargo-bidean behin betikoa den ala ez adierazi behar da, eta, kasu bakoitzean, eskatzaileak zer errekurtsio dituen eskura ebazpenaren kontra egiteko, zer organoren aurrean egin behar diren eta zenbateko epea duen horretarako. Ikus-onespena ukatzeko arrazoi bakarrak izango dira elkargokideak ez betetzea estatutuetan xedatutako kondizioak, lege xedatutako bateraezintasunen bat egotea eta ikus-onetsi beharreko dokumentazio teknikoaren eduki formala zuzena ez izatea indarrean dauden arauen arabera.

Lehen aipatutako hiru kasuetako azken bietan, epe berean erabaki ahalko du Elkargoak ikus-onespena ez ematea harik eta ematea galarazten duten kondizioak desagertzen diren arte. Behin betiko ebazpena, nolana, ematekoa nahiz ukatzekoa, esekita uzteko erabakia hartu eta hilabeteko epean hartu beharko du. Elkargoak azken erabakia esekita uzteko ebazpena berariazkoa eta motibatua izango da, hartu eta hamar egun balioduneko epean jakinaraziko da, eta bere testu osoa edukiko du. Ebazpena interesatuei jakinarazten zaien dokumentuan ebazpena elkargo-bidean behin betikoa den ala ez adierazi behar da, eta, kasu bakoitzean, eskatzaileak ebazpenaren kontra egiteko zer errekurtsio dituen eskura, zer organoren aurrean egin behar dituen eta horretarako zenbateko epea duen ere bai.

Epeak ebazpenik berariaz eman gabe iraungita, eskatzaileak onartutzat ulertu ahal izango du bere eskaera, administrazioaren isiltasun positiboan, non eta ez den ikus-onespena bertan behera utzi delako; horrek ondorioak eragingo ditu.



### a. Ikus-onespena exijitzea

**26.** GAATEOEen 3.15 artikulua dio Elkargoaren eginkizunetako bat hau dela: «Elkargokideek jasotzen dituzten enkargu profesionalen jakinarazpenak erregistratzea eta, bezeroek eskatzen dutenean nahiz legeak ezarritakoaren arabera nahitaezkoa denean, ikus-onespena ematea lan profesionalari eta haiek euskarri dituzten dokumentu teknikoari. Legeak eskatzen dituen enkargu-notaren eta aurrekontuaren bidez dokumentatuko da jakinarazpena».

EELaren 24.i artikulua xedatutakoaren arabera, bezeroek beren borondatez eta berariaz eskatzen dietenean edota indarrean dauden arauak hartara behartzen dutenean baizik ezin izango dituzte Elkargo profesionalak lan profesionalen ikus-onespena eman. Bestalde, EPLaren 13.1 artikulua hau dio: «Lanbide teknikoetako elkargoek nork bere eskumen-esparruko lan profesionalak ikus-onetsiko dituzte, bezeroek (herri-administrazio gisa diharduten herri-administrazioak barne) hala eskatzen dietenean bakarrik, edota Gobernuak Errege Dekretuz hala agintzen duenean».

Gaur egun kontu hori dela-eta indarrean dagoen araua abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege-dekretua da, Elkargoen Ikus-onespena Nahitaez hartzeari buruzkoa (aurrerantzean, Ikus-onespenen Errege Dekretua). Hartan erabaki zen elkargoen ikus-onespena nahitaez egin behar zaien lan profesionalen zerrenda, lan horien eta pertsonen osotasun fisikoa eta segurtasunaren artean zuzeneko kausalitatea zegoelako eta helbururako modu egokiena zelako. Zerrenda horretan bederatzi jardura bildu dira, eta Errege Dekretuaren 2. artikuluan daude jasota.

Beraz:

- Bezeroek beren borondatez hala eskatzen dioten lan profesionalak eta Errege Dekretuak nahitaezko izendatu dituenak baino ezin izango ditu ikus-onetsi Elkargoak.

- Ikus-onespenarekin lotutako kontu guztiak arautzeko lege-erreserbarik ez denez ezarri, estatutuen 3.15 artikulua erredakzioa aldatu behar litzateke eta *lege* esaten den tokian, *indarrean dagoen arau* edo antzeko zerbait esan.

### b. Beste lurraldeetan kide-tutakoek Gipuzkoan egiten dituzten lanak

**27.** Ikus-onespenen Errege Dekretuaren bitartez garatu da ikus-onespenen gaineko arauketa<sup>20</sup>. Arau horren 5. artikulua hau dio: «Elkargo batek bere burua estatuaz azpiko mailako elkargoen bidez antolatzen duenean, ikus-onespena derrigor hartu behar duen lanaren profesional sinatzaileak edozein

<sup>20</sup> 1000/2010 Errege Dekretua, abuztuaren 5ekoa, Elkargoen Ikus-onespena Nahitaez hartzeari buruzkoa .



lurralde-elkargotan jaso ahalko du ikus-onespena. Profesionalak ikus-onespena berea ez duen Elkargo batean eskatzen duenean, Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legean aurreikusitako komunikazio-mekanismoak eta kooperazio administratiboko sistemak erabili ahal izango dituzte Elkargoek».

Horren ondorioz, beste Elkargoetan kidetuta dauden profesionalak materia dela eta eskudun den edozein elkargotan eska lezakete ikus-onespena.

**28. GAATEOEek 9.1 artikuluan arautzen dute kontua:**

**9. artikulua. Profesioan aldi batez jardutea Gipuzkoako lurraldean.**

1- Beste lurraldeetan kidetutako profesionalak Gipuzkoan egiten duten jarduna jakinaraztea.

Beste lurraldeetan kidetutako profesionalak Gipuzkoan jardun ahal izateko betekizun bakarra da *delako jarduera profesionala Elkargo honetan ikus-onespena edo erregistroa egiteko aurkeztea, Estatutu hauetako 33. artikuluan aurreikusitako kasuetan.*

**29.** Txosten honetan lehenago esan dugunez, profesio bat lurraldeko elkargotan antolatzen denean, nahikoa izango da haietako batean kidetuta egotea lurralde osoan jardun ahal izateko. Haatik, GAATEOEen 9. artikuluan betekizun berri bat ezarri da berari dagokion lurraldean jardun ahal izateko: Gipuzkoan egin beharreko lanek GAATEOaren ikus-onespena jaso behar izatea, hain zuzen.

Lehen esandako guztia dela eta, baina, aipamen hori ezabatu behar litzateke.

**c. Proiektu partzialak eta elkargo profesional bat baino gehiagoren eskumena**

**30.** Esandakoa ez ezik, Ikus-onespenen Errege Dekretuak xedatutako beste aldaketak ere hartu behar ditu aintzat GAATEOak, bereziki proiektu partzialen ikus-onespenari buruzkoak eta lanen materia dela-eta eskumena elkargo profesional bati baino gehiagori dagokien kasuetarako aurreikusitakoak.

Alde batetik, Ikus-onespenen Errege Dekretuaren 3. artikulua aurreikusia du proiektu partzialen bidez nahiz bestelako dokumentu tekniko bidez garatzen edoosatzen diren proiektuak ikus-onetsi behar direnean, nahikoa izango dela materia nagusiari dagokion Elkargo eskudunak lan osoaren ikus-onespena ematea.



Bestetik, Ikus-onespenen Errege Dekretuaren 5.1 artikulua dio materia baten gaineko eskumena elkargo profesional batena baino gehiagorena denean, lanaren ikus-onespena edozeini eska liezaiokeela profesionalak<sup>21</sup>.

## F. Elkargoko kideak elkarren kontra bidegabe lehiatzea

**31.** Gaur egun, urtarrilaren 10eko 3/1991 Legea dago indarrean gure sistemaren barruan, eta hark oso debeku zehatzak ezartzen ditu. Besteak beste, nabarmentzekoa da 4. artikuluko klausula orokorra, zera xedatzen baitu: «**Kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan**, ulertuko da fede onak eskatzen duenaren kontrakoa dela enpresaburu edo profesional batek prestasun profesionalaren kontrako jokabide bat izatea —merkatuko praktika zintzoen arabera enpresaburu batengandik espero daitekeen gaitasunaren eta arreta berezien mailatzat ulerturik prestasun profesionala—, jardunbide haren xede den batez besteko kontsumitzailearen jokabide ekonomikoa edo —kontsumitzaile talde konkretu bati zuzenduriko merkataritza-jardunbidea bada— xede-taldeko **batez besteko kidearena modu adierazgarrian desorekatzen duena edo desoreka dezakeena**». Klausula orokor horrekin bat, arauko 5-31. artikuluek arautzen dituzten jardunbideak bakarrik har daitezke desleialtzat. Publizitateari dagokionez, berriz, azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorrak, publizitateari buruzkoak, legez kontrakoak jotzen dituenak bakarrik har daitezke desleialtzat.

**32.** GAATEOEen 3.7. artikulua arautzen du gaia.

### 3. artikulua.

Elkargoaren eginkizunak.

7. Administrazioaren aurrean salatzea, eta Justizia Auzitegietan borrokatzea, jakiten dituen intrusismoko eta lehia bidegabeko kasuak, betiere indarrean dauden legeen arabera.

**33.** Nolanahi ere, «lehia bidegabeari» buruzko aipamen orokor horrek —Legean jasotzen dena baino zertxobait zabalagoa den edukia eman ohi zaio terminoari— lehia mugatu dezakeela azpimarratu behar da.

<sup>21</sup> Hitzarmen bidez ebatzitako LBNaren S/0002/07 espedientean, Espainiako Arkitektoen Goi Kontseiluarena, Kontseiluak hartutako erabaki murriztailea aztertu zen; haren arabera, arkitekto edo arkitekto tekniko batek sinatu behar zituen segurtasun- eta osasun-azterlanak, beste teknikari guztiek sinatutako ikus-onespenak ukatuz. Hitzarmen bidez hartutako erabakian, azterlanek horretarako eskumena duen edozein teknikariren sinadura izan zezaketela ebatzi zen, betiere horien eskumenak eta espezialitateak kontuan hartuta.





Kontuan izanik aldaketak izan direla gaiari buruzko araudian eta kontuan izanik Elkargoko kideek ez dutela zertan izan haien berri, komeni da GAATEOEtan berariaz aipatzea lehia bidegabeari buruzko legearen zer arau konkretu urra lezaketen profesionalen jardunbideek. Tentu berezia erabili behar da gutxieneko zerbitzu-sariak ezartzea edo ezartzen laguntzea, sariak koordinatzea eta horiek libreki finkatzen ez uztea eragin lezakeen elementurik ez aipatzen, ez eta profesionalen komunikazio komertzialak mugatzen lagun lezakeen elementurik ere.

Horrez gain, zorrotz zaindu behar da xedapen horren garapena eta erabilera, zeren, lehenago ere esan dugun bezala, Elkargo bat LBLaren mende egotea ez da haren Estatutuek hitzez hitzez araudiari men egitea bakarrik. Aitzitik, elkargoen ekintza eta erabaki guztiek ere araudiari men egin behar diote.

### G. Elkargoaren baliabide ekonomikoak

**34.** Lehiaren Batzorde Nazionalak egindako Elkargo Profesionalei buruzko Txostenean hau dio: «ikuspegi ekonomikotik begiratuta, elkargoko kide egiteko zein izateko kuotak garestiak badira, kostu hondoratutzat har litezke –batez ere elkargoko kide izateak merkatuan jarduteko abantaila konpetitibo nabarmena ematen badu–. Gertaera horrek bi ondorio ditu: alde batetik, lehiakide berriak desanimatzen dira, atzeratu egiten da horiek merkatuan sartzeko aukera eta ezin izaten dute merkatuan sartu, eta, horrenbestez, benetako lehia murrizten da. Bestalde, erabiltzaileek eta kontsumitzaileek pairatzen dituzte elkargokide egiteko eta izateko ordaindu beharreko kostuak»<sup>22</sup>.

**35.** GAATEOEen 42, 3.17 eta 5.4. artikuluek arautzen dute gaia.

#### **42. artikulua. Baliabide ekonomikoak.**

1. Elkargoaren baliabide ekonomikoak ohikoak eta apartekoak izan daitezke.
2. Hauek izango dira Elkargoaren baliabide arruntak:
  - a) Elkargoaren ondasunen eta eskubideen eta egiten dituen jarduera eta zerbitzu guztien emaitzak.
  - b) Elkargora biltzeko kuotak eta kideek ordaindu behar izaten dituzten aldikako kuotak.
  - c) Lan profesionalak erregistratzeko eta ikus-onesteko, eta Elkargoak bere eginkizunen barruan egiten dituen arbitraje, peritazio, ziurtagirien igorketa eta bestelako zerbitzuek eragindako izapidetze-gastuak.
  - d) Elkargoak ematen dituen beste zerbitzu guztiek eragindakoak.
3. Hauek dira aparteko baliabideak:

(...)

#### **3. artikulua. Elkargoaren eginkizunak**

Eginkizun hauek dagozkio Elkargoari:

<sup>22</sup> LBNaren txostena, 57. or.



17. Elkargoaren jardunerako eta haren egiturari eusteko beharrezkotzat jotzen diren kuota eta ekarpen ekonomikoak finkatzea.

**5. artikulua. Elkargora biltzeko prozedura**

4. Kolegiatzeak berekin dakar Elkargoak erabakita daukan biltze-kuota ordaindu beharra.

**36.** Elkargora biltzeko ezartzen den kuota horri dagokionez, aintzat izan behar da proportzionala eta ez diskriminagarria izan behar duela, eta hura izapidetzeak eragiten duen benetako kostuan oinarrituta behar duela egon. Sartzeko kuota ez da erabili behar ez elkargoaren beste zerbitzuen finantzazio-iturri gisa, ez lanbidean lehiakide berriak jarduten ez hasteko tresna gisa, are gutxiago jarduteko elkargokidetzea nahitaezkoa duen lanbide bat bada kasua.

H. Lanak Elkargoaren bitartez esleitzea elkargokideei

**37.** GAATEOEek 41.1b artikuluan arautzen dute kontua:

**41. artikulua. Elkargoaren beste zerbitzu batzuk**

1. Elkargoak, halaber, zerbitzu hauek emango dizkie bere kideei:

(...)

B- Lan-poltsa. Lan-poltsako zerbitzu bat eskaini lezake Elkargoak, lan-eskaintzak kudeatzeko, hedatzeko eta kaptatzeko. Elkargokideen lan-baldintzak hobetzea eta kide gazteenak lanbidean behar bezala hastea izango da, batik bat, zerbitzuaren xedea

**38.** Ez dago ezer aurpegiatzerik GAATEOari lan-poltsako zerbitzua abian jartzeagatik; haatik, komeni da gutxienez gaztigitzea kontu berezia erabili behar duela hura kudeatzean, ez daitezen urratu lehia babesteari buruzko arauak. Elkargokideentzako lan-poltsako edo lan-zerrendako sistema bat abian ipintzen bada, ez da oinarririk gabeko betekizunik eskatu beharko nahi duen orok hartan izena emateko.

**39.** Berriz diogu profesionalen jardunak lehiaren defentsarako arauak izan behar dituela goiburu, eta Erkidegoak ez duela zertan mugatu profesionalen gaitasun konpetitiboa. Hala, ez du profesionalen jarduna koordinatzera bideratutako ekintzarik egin behar, ez eta zerbitzuen eskaintza homogeneizatzen lagundu behar ere.

Bereziki zaindu behar du Elkargoak bere kideen artean ez ezartzea ez lan-txandarik, ez merkaturia banatzeko sistemarik, zeren sistema horiek, inoiz, bereziki kaltegarriak suertatzen diren konpentsazio-sistemak izaten baitituzte, profesionalak elkarrekin lehiatzeko estimulua indargabetzen dutena, bezeroen



kaltetan. LBNk hainbatetan eman du aditzera zer iritzi duen banatze-txandak direla eta<sup>23</sup>.

## I. Erantzukizun zibileko aseguruak

**40.** *Aterki* legearen 21. artikulua erantzukizun profesionaleko aseguru eta bermeei buruzkoa da, eta hark xedatu zuen lege baten aginduz baizik ezin zaiela exijitu zerbitzu-emaileei erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat, edo antzeko beste bermeren bat, sinatua izatea zerbitzua eman izanaren ondorioz eragin litezkeen kalteak estaltzeko. Artikulu berak ezarri du obligazio hori legez noiz exijituko den erabakitzeko irizpide gisa ematen diren zerbitzuek zuzeneko arrisku konkretu bat ekartzea hartzailearen edo hirugarren baten osasunari nahiz segurtasunari, edota hartzailearen segurtasun finantzarioari<sup>24</sup>.

EELaren 12. artikulua, hala, xedatu du tituludun profesionalek aseguru baten bidez estali behar dituztela beren jarduera profesionalak eragin litzakeen arriskuak, eta lanbideak elkargo profesionalik badu, Elkargoak hartu beharreko neurriak hartuko ditu bere kideek betebehari hori betetzen dutela bermatzeko.

**41.** GAATEOEetan, 5.2, 12.5, 41.1c eta 44.2f artikuluek arautzen dute gaia.

### **5. artikulua. Elkargora biltzeko prozedura**

2. Eskatzailea dagoeneko beste lurralde bateko elkargoan kidetuta ageri denean, hark jaulkitako ziurtagiria aurkeztea nahikoa izango da. Ziurtagirian eskatzailearen titulazioari eta egoitza profesionalaren aldaketari buruzko datuak azalduko dira, eta lanbidean jarduteko inhabilitatuta ez dagoelako deklarazioa ere azalduko da. Halaber, behar denean, erantzukizun zibil profesionaleko aseguru egitea dela eta zer egoeratan dagoen, Euskal Herriko Elkargo Profesionalei buruzko legeek dioten bezala.  
(...)

<sup>23</sup> Gaztela-Mantxako Farmazialarien Elkargori buruzko 639/08 espedientearen ebazpena, non aztertzen baitzen farmazia-zerbitzua emateko txandakako aldiak ezarri izana, eta Bilboko Notarioen Elkargori buruzko 562/2003 espedientearen ebazpena, besteak beste.

<sup>24</sup> 21. artikulua. Erantzukizun profesionaleko aseguruak eta bermeak.

1. Zerbitzu-emaileei exijitu ahal izango zaie lege-mailako arau baten bidez erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat edo antzeko beste berme bat sinatzea zerbitzua eman izanaren ondorioz eragin litezkeen kalteak estaltzearren, ematen diren zerbitzuek hartzailearen edo hirugarren baten osasunari nahiz segurtasunari, edota hartzailearen segurtasun finantzarioari zuzeneko arrisku konkretu bat ekartzen dieten kasuetan.

Exijitzen den bermea estaltzen den arriskuaren izaerarekiko eta muntarekiko neurrikoa izango da.

2. Horiek jaulkitako ziurtagiriak onartu egingo dira akreditazio gisa.

(...)



**12.5 artikulua Elkargokideen betebeharrak**

Elkargokideek betebehar hauek dituzte:

(...)

5) Euskal Herriko tituludun lanbideei eta elkargo eta kontseilu profesionalei buruzko 18/1997 Legearen I. Tituluaren III. Kapituluaren prestakuntzaren, sekretu profesionalaren, aseguruaren eta lanbidean halaberrez jardun behar diren inguruan xedatutako betebeharrak betetzea.

**41. artikulua. Elkargoaren beste zerbitzu batzuk**

1. Elkargoak, halaber, zerbitzu hauek emango dizkie bere kideei:

(...) C- Beste zerbitzu batzuk. Bere kideen jardun profesionala hobetzera zein kideen bestelako arlo batzuk (aseguruak, osasun-alorra, finantzarioa, komertziala...) hobetzera bideratutako zerbitzuak ere izan litzake Elkargoak. Zerbitzu horiek emateko beharrezko suertatzen diren hitzarmenak egin ahal izango ditu emateko gaitasuna duten erakunde publiko zein pribatuekin.

**44. Arau-hauste motak**

(...)

2. Arau-hauste larriak hauek dira:

f) Asegurua egiteko betebeharra ez betetzea.

**42.** Hori dela eta, Elkargoak aintzat izan beharko du ezin dituela inola ere bere kideak aseguru edo aseguru-etxe jakin batekin bat egitera behartu.

**J. Ordezkaritza eskusiboa**

**43.** EPLaren 1.3 artikulua, *Omnibus* legeak emandako erredakzioan, xedatu du, elkargoek dituzten funtsezko beste helburu batzuen artean, lanbidearen ordezkaritza instituzional eskusiboa izatea, lanbide batean elkargoan kidetzea nahitaezkoa denean.

**44.** GAATEOEen 2. artikulua dio hauek direla elkargoaren xedeak:

**2. artikulua.**

Elkargoaren xedeak

Hauek dira Elkargoaren xedeak:

1) Gipuzkoan Arkitekto Teknikoen lanbide arautuan nola jardun antolatzea eta haren ordezkaritza instituzional eskusiboa gauzatzea.

2.1 artikuluan aipatzen den ordezkaritza instituzional eskusiboari dagokionez, kontuan izan behar da txosten honen III.A atalean nahitaez kidetzeari buruz esandakoa. Hala, behin-behingoak pentsa liteke elkargoak baduela lanbidearen ordezkaritza eskusiboa, zeren, aldi baterako behintzat badu, nahitaez kidetze beharra zer lanbidetan aplikatu ahal izango den zehazten duen legea egin bitartean indarrean jarraituko baitu kidetzeko obligazioak, eta, horrekin batera,



lanbidearen ordezkariak eskusiboa ere elkargotari egokituko zaio. Nolanahi ere, delako lege hori onestean, hori guztia aldatu liteke, eta, beraz, iragankortasun hori berariaz aipatu behar lukete estatutuek.

#### IV. ONDORIOAK

**Lehena.**- Elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia Defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, osorik.

**Bigarrena.**- Elkargora nahitaez bildu beharrak lehiarekin zerikusia duten gaiak planteatzen ditu, eta ez merkatura sartzeari dagokionez bakarrik, baita lanbidearen jardunari dagokionez ere, eta horrek interes publikoa eta kontsumitzaileak kaltetu ditzake. Hori dela-eta, muga hori justifikatzen duten eta interes publiko kaltetuak daudela egiaztatzen denean bakarrik onartu ahal izango da hura derrigorrez ezartzea (lege bidez bakarrik).

**Hirugarrena.**- Edonola ere, elkargoek burutzen duten elkargodun lanbideetako jardunaren antolamenduak, interes korporatiboen defentsan ez ezik, elkargoetako kideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituzten interesen babesean ere oinarritu behar du, gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat.

**Laugarrena.** Txosten honen bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzak Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialaren Estatutuetako artikulua hauek aldatu beharra planteatzen du: 4, 9.1, 3.15, 3.7 eta 2.1

Bilbon, 2014ko martxoaren 4an

**PRESIDENTEA**  
**MARÍA PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**  
**IBON ALVAREZ CASADO**

**KONTSEILUKIDEA**  
**NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**KONTSEILUKIDEA**  
**RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**

